

«Zailagoa da 36ko kartzelatuenak kantatzea, oraingoan baino»

Garai batean Iparragirre aritu zen bezala, gitarratxoa hartuta dabil herritik herrira. Trikitiaren iraultza hura atzean utzi zuenetik, disko bakanak eskaini dizkigu, salgarritasunaren bazterretik sortuak, mamiz konprometituak. *Tximela kapitainaren izarrak* honetan, ahots gordinaren indarrez landu nahi izan du mezua.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

Errazagoa al da 36ko kartzelaldiez kantatzea egungo kartzelaldiez baino?

Dударик gabe, errazagoa da egungo kartzelaldiez kantatzea. Letragileak ezagunak dira, askotan kartzelan bertan idatzi dituzte testuak, eta badaukate publiko bat, militanteen masa esaten zaiona, zirkuitu bat. Errazegia ere izan liteke, presoen aldeko zerbait bihurtzen zaizu kantua zuk hala nahi izan gabe. Kantua ez den zerbait alegia. Atxikimendu keinu bat. Zailagoa da 36ko kartzelatuenak kantatzea, EAJkoak ziren euskaldun gehienak. Horrek murriztu egiten du, a priori, entzulegoa. Musikazaleak ez ditu ezagutzen, prentsak ere ez. Eta kartzelatuak diraute beren bertsoek, lauogei urte geroago. Argitara atera behar nituela ilunpetik, horixe bururatu zitzaidan. Atxikimendu keinu bat da, baina ez hain nabarmena, ez da berehalakoa. Gogoetatxo bat eskatzen du. Interesanteagoa iruditzen zait.

Zer esan dizute Tolosaldean? Edo zer nahiko zenuke esatea...

Oraindik ez didate ezer esan. Baina bertan kantu hauek kantatzea ederra litzateke. Bertakoa zen *Tximela*, San Blas auzokoa hain ziur. Anttonio bere laguna ere bai. Harro egoteko moduko ondorengoak eman ditu Tolosak. Familiakoek kontatu zidaten Franco Donostiara etortzen zenean hauek kontrolatu egiten zituztela, sarritan detenitzen zituztela. Kontatu zidaten *Tximela* Puerto Santa Mariatik etorri zenean ez zirela amaitu kartzelako joan-etorriak. Ikurrinaren bat jarria izango zuten Izaskungo puntan edo

elizaren batean eta handik Ondarretako kartzelara ere eramán omen zuten. Itzul diezaiozun ordaina. Haren ekarria garrantzitsua delakoan. “Hiltzen banaute ondorengoek kanta dezatela”.

Zer erakutsi dizu *Tximela kapitainaren* ibilerak?

Hogeita bi urteko zela egin zuten kapitain. Ez dut nire burua ikusten hogeita bi urterekin ezta sargento ere. Kartzelan, ez dut ikusten nire burua haren bertso lotuak eta libreak idazteko gai, halako umorez eta sentimenez. Bere obra osoa irakurrita, iruditzen zait kartzelan inoiz baino libreago izan zela bertsoak sortzeko. Zuzenago esanda, sorkuntzaren bitartez lortu zuela presondegiari gain hartzea. Irakaspen ederra eman dit, libreago izateko balio lezakeela bertsoak, margoak, musikak...

“Irakaspen ederra eman dit *Tximelak*, libreago izateko balio lezakeela bertsoak, margoak, musikak...”

Gerra garaiko kontuek aspertuta gauzkatela dioenik ere bada. Zer diozu zuk?

Erraz aspertzen dira batzuk. Zenbat pelikula egin ditugu ba 1936-1937ko hartaz? Zenbat monumentu daukate gudariak eta milizianoek? Ibili ote dira bakezale horiek Euskal Herrian barrena? Zenbat gutun idatzi ote diote Frantziako lehendakariari bi Mundu Gerretan hildakoen omenez herri guztietan dauden monumentu gaitzak kentzeko? Kuneteroek hildako gizon eta emakume errepublikano horiek denak, bertan uztea hobe? Niri ezinbestekoa egiten zait zapalduen alde jartzea, barrenak hala eskatzen dit, beste askori bezalaxe. Gerra kontuak argitzea, gerraren beraren aurka egitea dela uste dut nik.

Kanta ilunak dira denak. Egoera lazgarria, bakardadea, barne gogoeta biluzia dakarte formaz eta mamiz. Zer bilatu duzu disko hau kaleratuta? Zer bilatzen duzu kontzertuetan?

Ni letrek hunkitu ninduten bezala nahi nuke publikoa hunkitu. Horretarako zuk aipatzen duzun biluztasun horretara jo dut, eta gitarren hautua ere horretatik dator. Juanba Berasategik erakutsi zizkidanean, kantuak entzunda sortu zituen diskorako irudiak, sekulako poza hartu nuen, hirurok barne gogoeta berean geundela pentsatu nuen, Tximela, Berasategi eta neu alegia.

Gaurko kantu modernoaren aitzindariak omendu nahi izan dituzu. Kasura, Xabier Leteren hasierako garaia ekartzen ditu gogora zure kantakerak. Omenaldi hutsa? Aitortza? Nostalgia? Bada beste asmorik, arrazoirik edo aitzakiarik?

Denetatik pixka bat. Aurrekoei begira egon gara gaztetan eta haien influentzia nabaria da. Aitzindariak izan ziren. Eztabaida ederrak eta gogorak izan zituzten kantagintzari buruz eta gizartearen aurrean izan zituzten zailtasunak ere ez ziren nolanhikoak. Askotan iruditzen zait ez ote dugun atzera egin arlo askotan eta haien garaiko eztabaidetara itzultzen ez ote garen ari. Adibidez, kantariari ordaindu egin behar al zaio? gaztigitzen zituzten garai hartan... Bestalde ez da omenaldi hutsa, ez da nostalgia. Beraiek erakutsi zigutenak balio duela ere bai, bide eta estetika hark oraindik fruiturik eman dezakeelako frogara ere bai. “Gizona kartzelan sartu dute, zer esan du, zer egin du?” kantatu zuen Letek. Ba, adibidez, gizonak aurre egin dio faxismoari, eta aurre egiten jarraitzen du kartzelan ere.

Molde “modernoagoz” transmititu daitezke/zenezake bertsootan ageri den mina?

Nola ulertzen den modernitatea... Alde batek kantagintza modernoa deitzen diogu eta bestetik zaharkitua dela esango bagenu bezala. Rockeroagoa izan zitekeen, bluseroagoa ere bai... Baina modako estilo horiek ez dute beti modernitatea ziurtatzen. Estetika kontemporaneoago batek kantatzen ahal ditu gauza atzerakoiak. Ez da kontu erraza testu bat moldatzerakoan nolako tratamendua

KEPA GONZALEZ



“Melodiaren indarra eta ahotsaren aukera biluzik eta ia bakarrik egiteak arriskua zekarren, baina bestalde mezua hobetu nezakeela iruditu zitzaidan”.

eman behar zaion. Niretzat egin dudak hantuk bazuen zentzurik bertso hauek kantatzeko. Gitarra hutsean ahotsa gordin ateratzen da, sotiltasunean indar handiagoa zuten. Melodiaren indarra eta ahotsaren aukera biluzik eta ia bakarrik egiteak arriskua zekarren, baina bestalde mezua hobetu nezakeela iruditu zitzaidan.

Luxuzko kolaborazioak dituzu, esate batera Juanba Berasategi. Nola lortu duzu zuretzat azala eta diseno lanak egitea?

Ez da lehen aldia Juanbarekin. *Real politik*-en ere elkarrekin aritu ginen. Esperientzia handiko gizona da eta batez ere sormen handikoa. Askok ikasi dut berarekin; bere buruaren

kontra, puskatu eta berregin... Erronka bezala hartu zuen, horixe gustatzen zaio, bere burua behartzea, ezohikoak saiatzea...

Esaldi kategoriko ugari du Tximelak, bertsoetik askatu eta gaurko testuingurura ekar daitezkeenak: “Hoinbeste alfer biziko bada guk egin behar ordia”,

“Gerra bukatu egin da baina, ez dira egin bakeak”... Zein da zure gogokoena? Zergatik?

Gerraren miseriak kantatzen dituen batean “Hori da gerra, ta gerrak beste askori on egin dio” esanez bukatzen du. Oso ona da, esalditxo batean esplikatzeko du zertatik sortzen diren gerrak. Askok gustatzen zait beste hura ere, “Arma berdinez gure herrian ez da sartuko elbikan!”. Gudariaren harrotasun hori. Kapitainaren zaina. ■

“Gerra kontuak argitzea, gerraren beraren aurka egitea dela uste dut nik”

